

martxoak

30

ikasle eta gazte PROTESTA EGUNA



**Hezkuntza publikoaren eta plaza kopuru nahikoen defentsan!
Lanpostu duina ikasketak amaitzean!
Errepresioari eta gure eskubide demokratikoen murrizketei ez!
Gazteriaren etorkizunarengatik, krisia kapitalistek ordain dezatela!**

EZ DUGU ETSIKO!

Mundu guztiko gazteak langileekin batera gure eskubideen eta etorkizunaren aurka erasoak jasaten ditugu. Gaur egungo krisia eragin dutenek sustatzen dituzte eraso hauek: kapitalista handiek, bankariek eta beraien diktaduretara men egiten duten gobernuek populazioaren gehiengoaren nahiak eta interesak traizionatuz.

Azken urteetan kanpaina garrantzitsua aurrera eramana da gazteriaren izen ona galtzeko eta kriminalizatzeko. Honetan lan eta ikasi nahi ez dugun nagi eta mima-tuak bezala deskribatzen zaigu. Hala ere, ez da aipatzen: Bolonia planak unibertsitatea gero eta pribatizatuagoa dagoela; Lanbide Heziketan ez onartutako 50.000 ikasle daudela; selektibitatearen inposaketa eta gogortzea batxilergoko eta Goi Mailako LHko ikasleei; unibertsitateko matrikulen % 30aren igoera edo ikasgaiak errepikatzearen zigortzea prezioa 15 aldiraino biderkatuz. Datu hauekin mahai gainean, zelan esan daiteke gazteok ez dugula ikasi nahi? Egia esan, ez digute uzten!

Lan egiteko aukerarekin berdin gertatzen da. Gazteriaren langabezia tasa% 40 inguruan dagoenean Hego Euskal Herrian eta % 50 estatu espainiarrean zabor kontratuak, behin-behineko-

tasuna eta soldata miserableak dira eskaintzen dizkiguten alternatiba bakarrak.

Baina gazteok ez dugu etsitzen langabeziaren biktimak izatera eta hezkuntzaren mozketen aurrean. Gazteok gure etorkizunarengatik borrokatzeko prest gaude. Beti egon gara mobilizazioen lehen lerroan: gerra inperialistaren aurka, azken urteetako greba orokorren deialdietan, eskubide demokratikoen defentsan, eraso faxisten aurka... Gazteria beti manifestatu da sistema honen injustizien aurka, eta gaur berriro ikusten dugu hau Britainia Handiko ikasleen mobilizazioetan tasa akademikoen izugarritzko gorakadaren aurka; Italian, Berlusconiren hezkuntzaren kontrarreformen aurka; Frantzian, erretreten eta gazte lanaren kontrarreformen aurka edo Tunisia, Egipto eta Libiako iraultza harrigarrietan, non gazteria eztabaidarik gabe protagonista ari da izaten.

Baina gazteok ez dugu etsitzen langabeziaren biktimak izatera eta hezkuntzaren mozketen aurrean. Gazteok gure etorkizunarengatik borrokatzeko prest gaude. Beti egon gara mobilizazioen lehen lerroan: gerra inperialistaren aurka, azken urteetako greba orokorren deialdietan, eskubide demokratikoen defentsan, eraso faxisten aurka... Gazteria beti manifestatu da sistema honen injustizien aurka, eta gaur berriro ikusten dugu hau Britainia Handiko gure kideekin, tasa akademikoen izugarritzko gorakadaren aurka; Italian, Berlusconiren hezkuntzaren kontrarreformen aurka; Frantzian, erretreten eta gazte lanaren kontrarre-



Ikasle Sindikatua

formen aurka edo Tunisiako, Egiptoko edo Libiako iraultza harrigarrietan gazteria eztabaida ezinezko protagonista izaten ari da.

Gezur guzti hauek botatzen dituzten bitartean eskaintzen diguten bakarra mozketak dira, hezkuntza publikoan eta gure institutuak azpiegiturretan; belaualdi batentzat etxebizitza duina eskuratzea ezinezkoa egiten dute, eta aldi berean eskaintzen diguten aisialdiarekin tenteltzen gaituzte, gero horregatik zinikoki kriminalizatzeko. Gazte eta ikasleok nahikoa dela esan behar dugu! Gu ez gara krisi honen arduradunak eta ez dugu onartzen bere biktimak izatea.

Martxoaren 30ean denok borrokara

Arrazoi hauengatik guztiengatik Ikasle Sindikatutik martxoaren 30ean ikasle eta gazte guztiei mobilizatza deitzen diegu, gazte eta ikasleok protesta egun zabal eta masiboa antolatza. Nola? Ikasketa zentroetan geldialdiak eginez eta manifestazioak gauzatuz era honetan argi uzteko jasaten ari ditugun erasoekin ez gaudela bat ere ados eta etorkizuna defendatzeko.

- Krisia kapitalistek, bankari handiek eta espekulatuzaileek sortu dutelako, etxebizitza eta burtsa burbuilarekin aberastuz, gobernu guztien laguntza eta bermeekin.
- Sistema kapitalistaren krisiak eztanda egin duenetik, hartutako neurriek soilik aberatsenei mesede egin die eta populazioaren gehiengoari kalte. Estatu espainiarraren kasuan, Zapateroren gobernuak langile publikoei soldata jaitsi die, lan kontrarreforma onartu du patronalaren mesedetan, 150.000 milioi baino gehiago eman die bankariei osasunean eta hezkuntza publikoan aurrekontuak murrizten dituen bitartean.
- Langileek eta gazteek ez dutelako ezer irabazten onartutako mozketak eta erasoekin. CCOO eta UGTko buruek erretiroa hartzeko adina 67 urtera luzatu eta pentsioak murriztuko dituen hitzarmena sinatu dute patronalarekin eta gobernuarekin. Hau gure eskubide eta interesen aurka doan politika babestea da, bereziki gazteen aurka, erretiro duina inoiz ez dugulako lortuko. UGT eta CCOOko buruek huts egiten dute horrela eraso berriak saihestuko dutela uste badute. Beraien jarrerarekin talka egiten dute sindikatuen oinarriaren, langile klase osoaren eta gazteriaren nahien aurka, erasoaren aurka borrokatu eta mobilizatu nahi duenak. Argi geratu zen ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK eta HIRUK Euskal Herrian deitutako

hiru greba orokorretan baita CCOO eta UGT-k irailaren 29an estatu osoan deitutakoan. Euskal gehiengo sindikalak mobilizazioei jarraipena eman behar die, UGT eta CCOOko oinarrietara zuzenduz, hauen gehiengo ez baitago hitzarmenarekin ados. Hego Euskal Herria borroka erreferentea izan ahalko litzateke, borroka espainiar estatu osora hedatzera animatuz.

- Gobernuaren erasoaren aurrean badagoelako alternatiba, eta hau gazteriaren eta langileen aldeko neurriak aplikatzean datza:

- a) Hezkuntza publikoaren defentsa.** Aurrekontuen erabateko gorakada ikastetxeentzako. LH baztertzeari ez.
- b) Boloniari ez, ezta selektibitate ekonomiko eta akademikoari unibertsitatean sartzeko.** Aski da Unibertsitate Publikoan matrikula tasak igotzeaz eta egonaldien arauen gogortzeaz. Ez dugu nahi, urtero gertatzen den bezala, milaka ez onartu egotea. Diru publikoa Unibertsitate Publikoarentzat: euro bat ere ez unibertsitate eta irakaskuntza pribatuari.
- c) Euskararen irakaskuntzari eragozpenik ez.** Nafarroan "Ley del Vascuence"-ari ez. Kalitatezko eskola publiko, demokratiko, zientifiko, laiko eta euskaldun baten alde.
- d) Lanpostu duina ikasketak amaitzerakoan.** Gobernuak, CEOEk eta CCOO eta UGTko buruek sinatutako hitzarmeneko zabor kontratuei ez. Lanpostu duinak eta ondo ordainduak.
- e) Euskal gazteriaren jazarpen politikoari ez.**
- f) Gazte langabeziari ez.** Hilabetean 1.100 euroko mugagabeko langabezia-sorospena langabe guztientzat lana aurkitu arte.
- g) Aski da bankari, enpresari eta espekulatuzaileei diru publikoa oparitzeaz.** Banka nazionalizatu behar da langileek sortzen dituzten baliabideak lan publikoetan, osasunean eta hezkuntzan erabiltzeko, milioika langabeei lana emateko!

Ikasle Sindikatutik ikastetxe eta fakultate guztietako ikaskideei **Borroka Komiteak antolatzen deia egiten diegu martxoaren 30eko protesta eguna prestatzeko.** Panfleto hau zabaldu, delegatu bilerak deitu, asanbladak egin gela guztietan. Orri hau zure guraso eta irakasleei pasa, gure etorkizuna defendatzeko mobilizazioan langileen babesa lortzeko. Ikasle Sindikatuarekin kontaktuan jarri mobilizazioa antolatzeko, zure ikastetxera joateko asanbladak egitera, eta afiliatu indartsuagoak izateko.

**Gure etorkizunarengatik borrokatzeko garaia da!
Aski da langile eta gazteak erasotzeaz!
Guztiok martxoaren 30eko mobilizaziora!**

Joan manifestazioetara! • 12:00etan

Gasteiz: Andre Mari Zuriaren Plazan • Bilbo: Arriaga Plazan

Ikasle Sindikatuarekin antolatu zaitez!

Panfleto hau egiteak 0,05€ kostatu du • Lagundu ekonomikoki gazteen borroka gure etorkizunaren defentsan • c/c: 0182 - 0975 - 52 - 0201447054 del BBVA

ikaslesindikatu.blogspot.com / www.sindicatodeestudiantes.net

Gasteiz: San Antonio 32, bajo. CP 01005 • Telf: 945 231 202 • araba@sindicatodeestudiantes.net
Bilbo: Bailén 7, sótano 1º, Dep. 8, Bilbo. CP 48003 • Telf: 944 790 381 • bizkaia@sindicatodeestudiantes.net